

@@@200/2011 DEKRETUA, irailaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.@@@

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioentzat eta lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori zenbait aldiz aldatu da.

Lanpostuen zerrendak administrazioako barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluan agindutakoa betetzeko.

Ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko irailaren 13an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Zenbait zentro organikotan karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen I. eranskinean agertzen dira eta urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez eta beraren ondorengo aldaketen bidez onartu ziren.

Bigarren artikulua.– Zenbait zentro organikotan lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen II. eranskinean agertzen dira eta urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko irailaren 13an.

Lehendakaria,

FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.